



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALAREN ETA IBARBI ERREZILGO ERREZIL SAGARRAREN
ELKARTEAREN ETA HONEN HARIRA SORTU DEN IBARBI ERREZIL SAGARRA
KOOPERATIBAREN ARTEKO HITZARMENA

Azpeitian, 2023ko apirilaren 14an

BILDURIK

NAGORE ALKORTA ELORZA, NAN zenbakiarekin, Azpeitiko udaleko
Alkate-Lehendakaria.

Luis Berrondo Lanzeta, NAN zenbakiarekin, IBARBI ERREZILGO
ERREZIL SAGARRAREN ELKARTEAREN (G75135921) Lehendakaria.

Luis Berrondo Lanzeta, NAN zenbakiarekin, IBARBI ERREZIL
SAGARRA KOOPERATIBAREN (NIF:) Lehendakaria.

Egintza honetan fede ematen du Olatz Eizagirre Orbegozo, udaleko Idazkariak

ESKU HARTU DUTE

NAGORE ALKORTA ELORZA andreak, bere jarduneko kargua betez, Azpeitiko
udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, udalbatza plenoak 2019ko ekainaren 13an hartutako
akordioaren arabera.

LUIS BERRONDO LANZETA, jaunak, bere jarduneko kargua betez, IBARBI
ERREZILGO ERREZIL SAGARRAREN ELKARTEAREN izenean eta hura ordezkatzuz,
Elkartearen Estatutuen artikuluen arabera (2022ko maiatzaren 2an hartutako akordioa).

LUIS BERRONDO LANZETA, jaunak, bere jarduneko kargua betez, IBARBI
ERREZIL SAGARRA KOOPERATIBAREN izenean eta hura ordezkatzuz, Kooperatibaren
Estatutuen artikuluen arabera.



Honenbestez, elkar behartzeko legeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, honako
aurrerakinak azalduz.

AURREKARIAK

I.- Azpeitiko Udala, Landeta Etorbidea, 38 behe solairuan kokaturiko lokal baten jabea
da. Berau, Udal Ondasun Inbentarioan 1.1.00014 zenbakiarekin azaltzen da.



Azpeitiko Udala

Lokalaren deskribapena: dagokigun lokala Landeta Etorbidea, 26 dagoen industria pabiloi baten behe solairuan kokatzen da. Azalera 450,00 m²-koa da. Lokal honek fatxada du kanpoaldera eta sarrera zuzena du gune publikotik. Biltegi bezala erabiltzen da.

Azpiegitura hauek guztiak ditu, argia, ura, hotz instalazioa e.a.

Ondasunaren izaera patrimoniala da.

Hitzarmenari atxikitzen zaio eranskin moduan Udalaren inbentarioan jasotako baldintzak. Aldi berean gaur eguneko argazkiak ere lotzen dira.

II.- IBARBI Errezilgo Errezil Sagarraren Elkarte 2014. urtean sortu zen errezil sagarraren ikerketa, garapen eta zabaldundea egiteko, gizarte, ekonomia eta kultura arloan.

2014tik gaurdaino, Elkarteak ikerketa lan handia egin du landa-eremuko adineko nekazariekin, Foru Aldundiarekin eta ikerketa zentroekin sagar mota hori identifikatzeko eta barietatearen genetika ezagutzeko. Landaketa berriak egin dira, eta baita horien jarraipena ere, ezaugarri genetiko onenak berreskuratzeke.

Produktu hau hedatzeko ekitaldi ugari bideratu ditu Elkarteak, eta baita sagarrerren ibilbidea ere Errezilgo Udalaren laguntzarekin.

Elkarteak 2021. ekitaldian helburu berri bati hasiera eman zion, eremu ekonomikoan sagarra garatzeko eta lantzeko, eta tokiko elikagai honen kontsumoa sustatzeko (mahai gordineko sagar moduan, produktu landuak -zukuak, purea, mermelada eta sagar gozoa-). Horretarako IBARBI ERREZIL SAGARRA izena duen irabazi asmorik ez duen kooperatiba bat eratu da Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 112. artikulua baitan.

Kooperatibaren helburua sagar barietate hori kalitatezko tokiko produktu gisa berreskuratzea, ikertzea, garatzea, zabaltzea eta merkaturatzea da. Azken fase honetarako Udalarí hutsik duen lokala uzteko eskaera egin dio, produktuak biltegitratzeko behar dituen baldintzak dituelako.

III.- Azpeitiko udalak sustatu duen politika bat lehen sektorearena da. Honen baitan, betidanik saiatu da landa-ekonomia bizirik mantentzen, sektore honetan lan egiten duten nekazariei lagunduz, hauek kalitatezko elikagaiak ziurtatu dezaten eta modu honetan tokiko elikagaien eskualdeko eskaria sendotu dadin. Ingurumen esparruan landa-eremua zaintzeaz gain, tokiko elikaduraren eskaintza nahikoa garatzea da helburu nagusia, eta aldi berean sektore honetan enplegua sustatzea.

IBARBI Errezilgo Errezil Sagarraren Elkarteak eta honen harira sortu den



Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA



Azpeitiko Udala

Kooperatibaren egitasmoa bat dator garapen jasangarriaren baitan lehen sektorea bultzatzeko, eta Udalaren helburuekin eta herriaren beharrak eta nahiak betetzen laguntzen du. Bailarako lehen sektorea bultzatzeaz gain, tokiko kalitatezko elikagaien merkaturatzea lagunduko baitu,

Bestalde, Landeta Etorbidea, 26 behe solairuko lokala denbora luzean bailarako ardi-gaztaren biltegi moduan erabili izan da (lokala behar bezala egokitu zen hotz-instalazioekin). Hala ere, badira urte batzuk lokala hutsik dagoela, inolako eskaerarik ez delako egon. Modu berean, lokalaren ezaugarri bereziak ez dute aukera ematen beste erabilera baterako.

IV.- Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena den urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua baitan, Azpeitiko Udalak eta AZPEITIKO UDALAREN ETA IBARBI ERREZILGO ERREZIL SAGARRAREN ELKARTEAK eta honen harira sortu den IBARBI ERREZIL SAGARRA KOOPERATIBAK Tokiko produktuaren kontsumoaren aldeko apustua egitea, lehen sektorea indartzea eta herritarrek elikagaiak kontsumitzeko duten eredia eraldatzea duen HITZARMEN bat egingo dute.

Azpeitiko Udalak Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa den apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1. 8), 25) eta 34) artikulua baitan jasotzen diren eskumenak bideratuko ditu. Hitzarmenaren bidez errezil sagarra barietatea kalitatezko tokiko produktu gisa berreskuratzea, ikertzea, garatzea, zabaltzea eta merkaturatzea izango da, eta modu honetan lehen sektorearen garapen jasangarria bultzatuko da: bailarako Ingurumena zaintzen lagunduz, eta esparru honetan dagoen enplegua indartuz.

Hitzarmen horren baitan bi entitate hauek, modu solidarioan, beren estatutuetan jasotako azken helburu hau betetzeko -produktuen merkaturatzea-, gaur egun hutsik dagoen Landeta Etorbidea, 26 behe solairuko lokala erabiltzea izango dute.

Toki Araubidean indarren dauden xedapen legalen testu bateratua onartzen duen 781/1986 Errege Dekretu Legeligen 79. artikuluari jarriki ondasun higiezinak, soilik lagatu ahal izango dira entitate edo erakunde publiko edo irabazi asmorik gabeko entitate pribatuak, beti ere, udalerriko biztanleriaren onurarako izango diren helburuak betetzeko. Zentzu berdinean, Toki Entitateko Ondasunen Erregelamenduak (1372/1986 Errege Dekretu-tako 109.2 artikulua).



Hitzarmenaren baldintza orokorrak eta zehatzak jarri eta zehazteko asmoz, bertaratu diren aldeek honako klausula hauek adostu dituzte.

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea

Helburu orokorra tokiko produktuaren kontsumoaren aldeko apustua egitea, lehen



Azpeitiko Udala

sektorea indartzea eta herritarrek elikagaiak kontsumitzeko duten eredia eraldatzea izanik, hitzarmen honen bidez Azpeitiko Udalak eta IBARBI ERREZILGO ERREZIL SAGARRAREN ELKARTEAK ETA HONEN HARIRA SORTU DEN IBARBI ERREZIL SAGARRA KOOPERATIBAK (azken bi hauek modu solidarioan) adostu dute errezil sagarra barietatea kalitatezko tokiko produktu gisa berreskuratzea, ikertzea, garatzea, zabaltzea eta merkaturatzeko honako ekintzak bideratuko direla:

a) IBARBI ERREZILGO ERREZIL SAGARRAREN ELKARTEAK ETA HONEN HARIRA SORTU DEN IBARBI ERREZIL SAGARRA KOOPERATIBAK honako ekimenak bideratuko ditu:

- Azpeitiko herrian errezil sagarra barietatea indartzeko programa bat bultzatuko du, horretarako aurrekontuan portzentai bat ezarritik.
- Programa horren bidez bailarako nekazariekin lanketa bat egingo da, sagar-barietateak izan dezakeen hazkundera ezagutzeko.
- Tokiko produktu hau merkaturatzeko beharrezkoa duen analisisia egingo du, eta herritarre sagar barietate hau ezagutu dezaten publizitatea egingo du, urteko agenda baten bidez.
- Azpeitiko herrian produktuaren merkaturatzea egingo du, herriko establezimenduetan aukera hori emanez.

Urteko emaitza eta lortutako helburuak memoria baten jasoko dira Udalarik jakinaraziko diote formalki, horren berri Ingurumen edota baserri esparruko batzordean azalduz.

b) Hitzarmen horren baitan bi entitate hauek beren estatutuetan jasotako helburu hau betetzeko -produktuen merkaturatzea-, gaur egun hutsik dagoen Landeta Etorbidea, 26 behe solairuko lokala erabiltzea izango dute.

Segidako ataletan lagapenaren inguruko baldintzak jasoko dira.

BIGARRENA.- Doako izaera.

Lagapenaren onuradunen funtsezko eskubide izango da lokala doan eta modu iraunkorrean erabiltzea elkartea eta kooperatiba sortu zen helburuak gauzatzeko. Bi entitateak bultzatu nahi duten proiektuak bailaran oso estimatua den errezil-sagarra bultzatzea du helburu nagusia, eta honekin lehen sektorean sortuko diren ondorioak (ingurumenaren zaintza, produktuaren kalitatea eta enplegua) erabat onargarriak dira. Udalak dagokion laguntza eskainiko du proiektu hau bideratzeko.

HIRUGARRENA.- Iraupena.

Hitzarmenaren iraupena, eta modu berean lokalaren lagapenak lau urteko epea izango dute, izenpetzen den egunetik aurrera.



Azpeitiko Udala

IDAZKARI TZA



Azpeitiko Udala

Hitzarmenaren indarraldia osoan, ezinbesteko baldintza izango da, lagapenaren onuradunek beren egitekoekin jarraitzea, eta beti ere lege barruan. Udalak, bere aldetik, edozein momentutan lokalaren erabilpena eskatu dezake lehentasuna duen zerbitzu publiko bat eskaintzeko, edo baita lehentasuna duen beste interes orokorra medio.

Lagapenaren onuradunek bete beharrekoak betetzen ez badituzte, edota Udalak lokalaren beharra badu hitzarmena eten egin ahal izango da. Hala, ere, aurretik Udalak hogei egun emango dizkio elkarteari egoki deritzona alegatu ahal izan dezan.

Kasu horretan lagapenaren onuradunek beharrezkoa dute lokalak uztea eta ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko aukerarik izango.

LAUGARRENA.- Helburuak

Lagapen hartzaileen oinarritzko eskubidea izango da lokala etengabe biltegi moduan eta sortu diren helburuetarako erabiltzea.

Beste zerbaitetarako erabili nahi izanez gero, Udalaren idatzizko-baimena beharko da.

BOSGARRENA.- Eskualdatzearen ezintasuna.

Lokala erabiltzeko eskubide bakarra eta eskualdatu ezina da, eta ez dago ez osorik ez zatirik alokatzerik ez lagatzerik, dohainik edota aldi baterako izanda ere.


SEIGARRENA.- Lokalaren kontserbazioa.

Lagatako lokala erabiltzean lagapenaren onuradunen betebeharrak izango dira:

a) Lagapenaren onuradunek baldintza egokietan kontserbatu eta mantenduko dute lokala. Higiene-egoera egokian eutsi beharko diote lagatako lokalari eta hura erabiltzeko beharrezko arduraz jokatu beharko dute, kalterik, arriskurik eta eragozpenik sortu gabe, eraikineko beste erabiltzaileei edo lagatako lokalaren inguruko lokalen jabeei edo erabiltzaileei. Halaber, bertako erabiltzaileek sor ditzaketen kalteen erantzule izango dira.

b) Lokala egoera onean mantentzeko dagokionez, Lagapen onuradunen kontura izango dira erabilerak sortzen dituen hainbat gastu: garbiketa gastuak, argindarra, ura eta lagapenaren ondorioz hartu den lokalaren erabileratik eratorritakoak, edota haiek sortutakoak.

c) Lagapen onuradunek ezin izango dute lokalean obra edo erreformarik egin, edozein motatakoa edo izaeratakoa dela ere, Udalaren idatzizko-baimenik gabe; Udalari berehala jakinarazi beharko diote lokalean sortzen den eta konpondu beharreko edozein kalte edo





Azpeitiko Udala

hondamen. Udalak ez du inolako kopururik ordaintzeko obligaziorik izango lokalean egiten dituzten hobekuntzengatik. Egindako erreformak eta hobekuntzak lokalari gehituta geratuko dira, kontraprestaziorik gabe, behin lagapena amaitu ondoren. .

d) Lagapen onuradunen kontura izango dira lagapenean jaso den lokalaren ohiko konponketak burutzea, ohiko erabilera-egoeran gorde ahal izateko.

e) Lokala adierazitako erabilerarako erabiliko da, behar den begirune eta arretarekin, eta erabilera okerraren ondorioz sortuko diren kalte eta hondaketen kargu egin beharko dute lagapen onuradunek.

f) Biltegi bezala erabiliko den eremuan arreta berezia ipiniko da, materiala gordetzeko garaian; adibidez erraz erre daitezken materialak sustantzia sukoiak dituzten materialekin ez nahasten. Lokalaren espaziotik kanpo ezingo dira materialak bildu, eta espazio komunak libre geratuko dira. Ezin izango da kartel edo esku orririk jarri udalaren baimenik gabe.

SEIGARRENA.- Jarduerak

Udalak ez ditu zuzenduko ezta adostasunik eman ere lagatako lokalean egin beharreko jarduerari. Lagapen onuradunek ez dute izango Udalarekiko mendekotasun-harremanik, eta Udala ez da ez zuzenean, ezta subsidiarioki ere, lokal barruan gerta daitezkeen kalte material, pertsonal edo moralen erantzule izango.

Debekaturik dago substantzia psikotropikoak kontsumitzea, erretzea edo edatea.

ZAZPIGARRENA.- Elkarbizitza.

Lokala egunean zehar nahi den ordutegian erabili ahal izango da.

ZORTZIGARRENA.- Ikuskapena.

Azpeitiko Udalak eskubidea izango du lokala ikuskatzeko. Aldez aurretik Lagapen onuradunen ordezkariarekin hitzordua jarriko da.

Azpeitiko Udalak lokalaren funtzionamendua zaindu eta kontrolatzeko eskubidea izango du (barruko ordena, zer ordutan ireki eta ixten den, lokal eta zerbitzuen garbitasun eta baldintza sanitarioak) eta behar den informazio eta dokumentazioa eska liezaioke onuradunei jardura horrek sortzen dituen eginbehar guztiak betetzen direla egiaztatzeko. Hori dela eta, Udalak lagatako leku eta instalazio guztietara sartzeko eskumena izango du.

Nolabaiteko akatsik antzemango balitz, behar den akta egingo litzateke, eta lehenengo aldian idatziz ohartaraziko zaie lagapen onuradunei eta hauek leudekeen kalteak zuzentzeko



Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA



Azpeitiko Udala

neurriak hartuko dituzte. Egoerak bere horretan jarraituko balu, eta horren arrazoiak justifikatuko ez balira, hitzarmena hautsi ahal izango da epe jakin baterako. Hirugarren saiakeran akatsak konpontzeko neurriak hartu ez badituzte onuradunek, hitzarmena behin betirako eten ahal izango da.

BEDERAZIGARRENA.- Segurtasuna.

- a) Indarrean dagoen segurtasun-araudia betetzen ez duen jarduerarik ezingo da egin.
- b) Segurtasunarengatik, ezingo da material arriskutsurik biltegitatu (su har dezaketen produktuak, e.a.).
- c) Lagapen onuradunek aseguru-poliza bat kontratatuko dute lagapenak irauten duen denbora guztirako, eta lokaletan uzten dituen ondasunak estaliko ditu lapurretak, sute-arriskuen aurrean e.a. eta orobat erabiltzaileek hirugarrenei sor diezazkieketen kalteengatik erantzukizun zibila. 60.000 euro ezbehar bakoitzeko izango da bermatu beharreko gutxieneko estaldura lagatako lokalarengatik. Azpeitiko Udalak ez ditu bere gain hartuko lagatako lokalena onuradunek izan ditzakeen altzarietan, informatika-tresnerian edota beste edozein materialetan gerta daitezkeen kalteak edota lapurrekak.

HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren jarraipena.

- a) Lagapen onuradunek kide bat izendatuko dute Azpeitiko Udalarekiko solaskide gisa. Kide hori jarraipen batzordeko partaide izango da. Era berean, Azpeitiko Udalak, lagatako lokalaren jarraipena egiteko bi kide izendatuko ditu (alorreko zinegotzia eta teknikoa). Kide horiek jarraipen batzordeko partaide izango dira. Jarraipen batzordea, beharren arabera bilduko da gutxienez, urtebetez behin, eta hitzarmenean zehaztutako klausula guztien betetze-maila ebaluatuko du.
- b) Lagapen onuradunek Azpeitiko Udalarik jakinarazi egin beharko diote, dagokion batzarraren aktaren kopiarekin, Elkarteko eta Kooperatibako lehendakariak edo zuzendaritza-batzordeko aldaketa, edo hitzarmenean eragina izan dezakeen edozein klausularen aldaketa.

Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA

HAMAIKAGARRENA.- Hitzaremena iraungitzat jotzeko arrazoiak.

Hhonako arrazoi hauengatik iraungi edo amai daiteke:

- a) Hitzarmen eta lagapen-epea betetzea.
- b) Hitzarmenak jasotako helburuak ez betetzea urtez urte.
- c) Eraikinaren suntsipena edo hondamena.
- d) Erabileraren aldaketa, hirigintza-ordenantzen aldaketa batean oinarrituta.



Azpeitiko Udala

- e) Udalak lokala berrerabiltzea beharrezko egiten duten interes publikoko inguruabar batzuk ezustean gertatzea.
- f) Agiri honetan bilduta dauden betebeharrak eta erabilera-printzipioak lagapen onuradunek modu larrian ez betetzea.
- g) Elkartea eta Kooperatiba amaitzea edo desegitea.
- h) Lokalaren benetako erabilerarik ez egitea sei hilabeteko epean, lokala erabilgarri utzi zenetik aurrera.

HAMABIGARRENA.- Higieztina uztea.

Behin hitzarmen hau iraingita, irupen epea amaitu delako edo ebazi delako, lagapen hartzaileek, hutsik eta Azpeitiko Udalaren eskura utziko dute lagatako higieztina, aipaturiko epea amaiten denetik hiru hilabeteren barruan.

Lagapen hartzaileek ez badute higieztina bere kabuz uzten, Azpeitiko Udalak hura utzaraztea erabaki eta erabaki hori betearazi dezake.

Eta, bi erakundeek adostasunez sinatzen dute hitzarmen hau, ale bikoitzez, goian aipaturiko lekuan eta datan.

IBARGI ERREZIL SAGARRA ELKARTEKO LEHENDAKARIA  Luis Berrondo Lanzeta	AZPETIKO ALKATE - UDALBURUA  Nagore Alkorta Elorza
IBARGI ERREZIL SAGARRA KOOPERATIBAKO LEHENDAKARIA  Luis Berrondo Lanzeta	

